


Egoera okertu da Urnietan, eta ez da hobe Andoaingoan

Azken astean 22 kasu berri izan dira Urnietan, intzidentzia biderkatuz / 2-3



Jokin Lizeaga
kirolari handiaren
itzulera, eskualdeko
mendietan
barrena / 10-11



Beñat Fernandez
"Pelontxu"ren
garaipena,
Xerezeko zirkuitu
ezagunean / 11



Kalakan musika talde
ezaguna zuzenean
ariko da ostiral
honetan, Bastero
Kulturgunean / 14



Kolore
loradenda berria
Urnietan, bi
gazte ekintzaileen
eskutik / 7



Indarkeria matxista
pairatzen dutenei
zuzendutako laguntza
taldea martxan dago
Andoaingen / 8

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK	GORDELEKUAK
44€ 2 m ² / BEZa barne	97€ 5 m ² / BEZa barne

- ASKOTARIKO TAMAINA ETAAZALERAK
- BIDIEZAINZA 24 ORDU
- SARBIDE ETENGABEA

605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Muebles Itarbe
barne.eus

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Urnieta, eremu gorrian; Andoain gertu da

Hogeita bi kasu jarraian izan eta gero, azkar batean igo da intzidentzia-tasa Urnietan. Andoaingo egoera orekatuagoa da, baina egunak daramatza eremu gorritik gertu. Gipuzkoako joera kaskarra ikusita, bietan itxiera perimetraletik gertu egon daitezke



Kutsatuak eta hildakoak pandemia hasi denetik

Andoain

- Kutsatuak hasieratik: 1099 (biztanlegoaren %7,33a).
- Hildako hildakoak hasieratik: 19 (hilkortasun-tasa: %1,73).
- Azkeneko asteko kutsatuak: 27 (aurreko astean, 23).
- Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko, 14 egunetan: 333,60 (aurreko astean 313,58).
- Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko, 7 egunetan (x2): 360,29 (aurreko astean 306,91).

Urnieta

- Kutsatuak hasieratik: 541 (biztanlegoaren %8,71a).
- Hildako hildakoak hasieratik: 4 (hilkortasun-tasa: %0,74).
- Azkeneko asteko kutsatuak: 16 (aurreko astean, 5).
- Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko, 14 egunetan: 338,22 (aurreko astean 128,85).
- Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko, 7 egunetan (x2): 515,38 (aurreko astean 161,06).

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Soburuari buruzko datu argirik gabe, birusak oldarraldi berria eragin du. Dagoeneko Gipuzkoa eta Urnieta eremu gorrian sartu dira. Gaur gaurkoz Urnietan mugikortasuna baimenduta dago, baina ia ziuerra da apirilaren 19ko ebazpenean itxiera perimetrala ezarri behar den udalerrien zerrendan sartuko dutela. Azken astean biderkatu egin da positibotasuna, 22 kasuraino. Joera apala errotik moztu da, eta dagoeneko 400eko intzidentzia-tasa gaitu du. Igandera bitarte 3 kasu gehiago metatuz gero, itxiera perimetrala ezartzeko baldintzak beteko ditu.

Andoaingo intzidentzia-tasa eremu gorriaren paraleloan doa, ia-ia. 400eko langak imana balu bezala, inork nahi ez duen eremu horretara gerturatzeko ari da. Asteazkenetik igandera 24 kasu batuz gero, hurrengo astean itxiera perimetrala ezarriko dute. Azken egunetan 4-5 kasu positibo agertzen ari dira, batez beste. Kopuru horietan jaitsierarik ez badago, itxiera ezartzea beste erremediorik ez da izango.

Datuak egunez egun zabaltzen dira Aiurri.eus webgunean, eta apirilaren 14an argitara eman ziren datuak ez ziren batere onak izan. Zainketa berezien unitatean 133 lagun zeudela adierazi zuen Osasun Sailak. Astebete atzera, 100 ziren. Igoera oso handia da hori. Datu kezkarri hori intzidentzia-tasa altuaren ondorio da, eta alor horretan Gipuzkoako datuak dira okerrenak. Euskadiko tasa 437koa da, eta Gipuzkoakoa 534. Ia ehun puntuko aldea da.

Birusa sueto dabil, onargarria den leko birsorkuntza tasaren oso gainetik. Olatuak ez du goia jo, oraindik.


Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Apirilak 07-13:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 340,27.
- **Martxoak 24-30:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 233,52.
- **Martxoak 17-23:** 14 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 186,82.
- **Martxoak 10-16:** 14 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 73,39.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 100,08.

URNIETA

- **Apirilak 07-13:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Martxoak 24-30:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 17-23:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 10-16:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 32,21.



Astezketetik igandera 24 kasu batuz gero, itxiera perimetrala ezarriko dute. AIURRI

24 kasu gehiagorekin, itxiera

ANDOAIN • Positibotasuna grafiko batera eraman beharko bagenu, ordeka moduko paisaia aterako litzateke. Imana balitz bezala, pixkanaka gerturatzten ari da itxiera perimetrala ezartzeko eremu gorriara. 4-5 positibo berri agertu da egunero, azken astean. Apirilaren 15era bitarte jasotako datua da. Igandera bitarte 24 kasu berri izanez gero, itxiera perimetrala ezarriko da.



Astezketetik igandera 3 kasu batuz gero, itxiera perimetrala ezarriko dute. AIURRI

3 kasu gehiagorekin, itxiera

URNIETA • Birusa nabarmen oldartu da. Apirilaren 2tik 6ra, bost egunez jarraian, Urnietan ez zen kasu positiborik agertu. Baina apirilaren 7tik 13ra 22 kasu positibo berri agertu dira, eta ondorioz eremu gorriaren ateetan da. Apirilaren 15era bitarte jasotako datua da. Igandera bitarte 3 kasu berri izanez gero, itxiera perimetrala ezarriko da.

Gipuzkoa, gorriz

Intzidentzia-tasa metatuan EAEko daturik okerrera du Gipuzkoak. Apirilaren 13an 500era iritsi zen, Euskadiko batz bestekoa nabarmen gaindituz (420). Goierrri eta Debagoienako udalerrietan ematen ari da intzidentzia-tasa handiena, baita Tolosan ere. Hiriburuei dagokionez, aldiz, Donostia eremu gorritik kanpo dago. Bilbo eta Gasteiz ez bezala.



Aduna. AIURRI



Donostia. IRUTXULO

Eremu gorritik kanpo dauden Gipuzkoako udalerriak


Asteburuan zehar hainbat udalerrietara joateko mugikortasuna baimenduta dago

Erredakzioa ANDOAIN

Egun hauetan ezinezkoa zaigu hainbat udalerrietara gerturatzeari. Besteak beste, eskualdeko Astigarragara edota Lasarte-Oriara. Ezta Orrio, Zarautz edota Tolosara. Asteburuan zehar planak egin nahi dituenarentzat hauexek dira mugikortasuna baimenduta duten udalerriak: Abaltzisketa, Aia, Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Alzaga, Altzo, Amezketeta, Andoain, Antzuola, Arama, Asteasu, Ataun, Azpeitia, Baliarrain, Beizama, Belauntza, Berastegi, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Elduain, Elgeta, Elgoibar, Errezil, Ezkio-Itaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Hernani, Idiazabal, Ikaztegieta, Irun, Larraul, Leaburu, Leintz-Gatzaga, Lizartza, Mendaro, Mutiloa, Mutriku, Orendain, Oresa, Ormaiztegi, Segura, Urnieta, Usurbil, Zerain, Zestoa eta Zumaia.


Getariko kasuan gauza bitxia gertatu da. Kostako udalerriak itxiera perimetrala ezartzeko Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren irizpide guztiak betetzen ditu, baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen astelehenerako ebazpenean sartu. Azalpen zehatzik ez dute eman, eta itxita dauden gainerako udalerriekiko ez dirudi erabaki zuzenena denik.

Aldagai nagusiak



Azken egunetako joera goranzkoa da. IREKIA

Intzidentzia-tasa metatua Laugarren olatuaren irudia hartzen ari da, azken datuak argitaratzearekin batera. Asteburu etako datuei erreparatuta, aurreko larunbat eta igandeko emaitzen arabera, birusaren oldarraldi berrian gaudela argi geratu da.



Azken egunetako joera kezagarria da. IREKIA

Oinarritzko birsorkuntza tasa Adituek hasieratik gogora ekarri zuten bezala, 1aren gainetik dagoenean birusa kontrolatik kanpo dago. Euskadi mailako tasa langa kezagarri horretan dabil, apirilean zehar. Eta bereziki kezagarria da Gipuzkoan.



Hirugarren olaturako okupaziora iristear gaude. IREKIA

Ospitaleratzeak Olatu bakoitzaren hasieran hainbat lagun ziren zainketa berezien unitateetan. Ondorioz, igoera bakoitzarekin tentsioa areagotuz joan da ospitaleetan. Apirilaren 6tik 13ra heren bat hazi da UCI-ZIUtako okupazioa, 100etik 133ra.



IRITZIA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

Hizkuntzaren txokorroskiloak

Hartu aizkora. Kontuz ibili, pisu handia du-eta. Hartu bi eskuekin. Indarrak batu eta ipini bizkar gainean. Gogor eutsi eta, barren-barreneko kemenez, egin gogor enborraren kontra, behin eta berriz. Saia zaitez, aldiro, leku berean kolpatzen; dena den, jabetuko zara, ahaleginak ahalegin, aizkora-ahoaren zorrotzasunak erabakiko duela ebakiaren sakontasuna. Koldo Mitxelenak esan omen zuen hobe dela aizkora itsusia eta zorrotza izan, polita eta kamutsa baino. Bada, euskarak, aizkorak legez, ebaki egin behar du, eraginkorra izan behar du.

Bi urterik behin, galdu ezinezko hitzordua bilakatu da, orain lau hamarkada, askok zentzugabekeriatzat jo zutena, KORRIKA. Hala ere, zoramenak ere badu zoragarritik: bide maldatsuetan gora, zenbaitetan; bidegurutzetan barrera, beste hainbestetan. Baina beti lekukoa eskuan. Aitzitik, mundua geldiarazi duen zomorroa ere ez da oztopo izan euskararen alde inoiz egin den jaialdi garrantzitsuena burutzeko eta, bide batez, euskaltegien alde aritzeko. Berrasmatzen jakin du AEK-k, eta zazpi probintziak zeharkatu ezin izan arren, makina bat txokotako kaleak aldarrikapenez betetzea lortu



Urnietan ekitaldi dotorea antolatu zuten martxoaren 28an, "Bultza Korrika, Bultza euskaltegiak!" izenburupean. AIURRI



Igande berean Andoaingo Goikoplazan elkartu ziren. AIURRI

du: argazki ederra utzi zigun martxoaren 28ak, "Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!".

Akatsa litzateke hizkuntzaren aldeko borondatea urteko egun zehatzetan, soilik, azaleratzea; izan ere, horixe behar du, egun, AEK-k, herritarren

"AKATSA LITZATEKE EUSKARAREN ALDEKO BORONDATEA SOILIK EGUN ZEHATZETAN AZALERATZEA"

bultzada. Oker gabiltza euskararen alde dugun egiteko bakarra Ahobizi eta Belarriprest txapak paparrean eramatean oinarritzen dela uste badugu; edota kontzientzia lasaitzen badigu, petoa jantzita, hainbat kilometroz, karriketan korrikan, korrika karriketan aritzeak. Orain mende erdi mahaigaineratu zuen Rikardo Arregi andoaindarrak helduen euskalduntze eta alfabetatze eskolen garrantzia, eta oraindik ere horien premiaz bizi gara. Euskal hiztunok euskara behar dugun horrenbeste behar gaitu gu euskarak, eta, ondorioz, hizkuntzaren beraren babesle zein sustatzaile direnek ere bai. Zuloa eragin du pandemiak AEKren poltsikoetan, eta gure laguntza behar du orain, hamarkada luzez osatutako amarauna ehuntzen jarraitzeko, baita euskararen aizkorak enborra gogor kolpatzeko ere. Bultzada behar dute zoro zoragarriek, gu guztion mingainak zorrotzen jarraitzeko; finean, euskararen arnagune, txorroskilo izateko.

EKARPEN EKONOMIKOA EGITEKO AUKERA DAGO AEK.EUS WEBGUNEAN



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoaingo.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarteandia.
idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoaingo), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiñena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Rocio Carrasco

Jakina da Telecinco “bertute ongilez” betetako Silvio Berlusconiaren Mediaset komunikazio-taldeko dirua egiteko makinaria dela. Jakina da Espainiako estatuan elite (ekonomikoa, komunikatiboa, finantzieroa, politikoa...) baten interesen alde jokatzeko duela; jakinek da kazetari pribilegiatuena kasta batek zuzentzen duela, jainkotutako star system egozentristak direla bere kide gehienak, eta, izan ezkerrekoak izan eskuinekoak, ondo ikasita daukatela lezioa, hots, etzazula sakoneko kritikarik egin Franco hil ostean 1978an sortutako erregimenaren aurka, bere altzoan eroso bizi nahi izatera behintzat.

Jakina da telebista horretako hainbat kazetarik arau etikoak hamaika aldiz pasa izan dituztela hanka azpitik; jakina da Telecinco tele-zaborraren faktoria izan dela, eta izaten segitzen duela; bertakoak, artistak direla morboa, exhibizionismoa, espektakulua eta sentsazionalismoa esplotatzen. Eta gainera, prostituitu egin dutela gizakien arteko bizikidetzan oinarritzakoa den elkarriketaren esentzia (patsada, errespetua, besteari entzuteko gaitasuna eta interesa, enpatia...). Normalizatu egin dutela iraina, garrasia, zalaparta...

Eta aldi berean, ezin ukatu Rocio Carrascok, gaztetan, folklorika baten eta boxeolari ohi baten alaba izatea esplotatu zuenik, gogo onez erabaki zuenik “bihotzeko” prentsak, zenbait pertsonaje publikoek eta tele-ikusle kontsumitzaileek osatutako hiruko unibertso horretako protagonistetako bat bilakatzea, eta horretaz baliatu zela bere interes partikularen alde. Badakigu Rocio Carrascok ez zuela batere erreparorik edukitzen bere bi seme-alabak -txikiak zirenean- zirku horren parte izan zitezen, eta horrela, ez

zituela babesten beren eskubideak -intimitatea, anonimotasuna...- telebista kamerak eta argazkien flashak aurrean zituenean.

Bestetik, agerikoa da Telecinco urrezko formula topatu duela “Rocío, contar la verdad para seguir viva” doku-seriearekin. Alegia, audientzia bidezko diru-iturria dela bere helburu nagusia, ez genero-indarkeriarekin lotutako injustizia pertsonal bat erreparatzeko grina. Eta jakin ere badakigu Rocio Carrascok dirutza jaso duela (bi milioi euro inguru, diotenez...) bereak eta bere familiarenak diren giza-miseriak kontatzeagatik.

Izatez, nahiko arrazoiak pilatzen zaizkigu muzin egiteko Rocio Carrascoren inguruko fenomenoari, bonbardaketa mediatiko guztiarekin nazka-nazka eginda. Baina jokabide horrek zilegitasun eta ulermen osoa daukala aitortu arren, atrebentzia ez bada, halaxe jokatu duenari gonbidapena luzatuko nioke auziaren azaletik hasita pittin bat aztarrika egin dezan. Izan ere, topa baititzakegu zenbait elementu, ikasgai, mezu... txit interesgarriak eta aberasgarriak, show guzti horrengandik abstrakzio ariketa eginez gero. Hots, analisiak eta gogoetak egiteko, zenbait gaien inguruan: emakumeen eta gizonezkoen rol tradizionalak familiaren baitan, genero-indarkeriaren azpian maiz dauden ertz konplexu eta ikusezinak, komunikabide eta kazetari askoren jarrera etikoa (eza) eta ahalmena iritzi publikoan eragiteko...

TELECINCO BERE-BEREA DUEN FRIBOLITATE-DOSI HANDIAREKIN ARI DA JOKATZEN

Jar gaitezen testuinguruan, labur bada ere: hogeitaz igaro dira Rocio Carrasco eta Antonio David Flores banatu zirenetik eta bigarrenak bi seme-alaba txikien zaintza lortu zuenetik. Isilik igaro ditu lehenak, bi hamarkadak; bien bitartean, senar ohiak, komunikabide ugariaren konplizitatea lortu izan du bere bertsioa zabaltzeko, bere emazte ohiaren irudia kakazteko, ama gaiztoaren eta aita zintzo-idealaren rola zabaltzeko... Bere bertsioa plazaratzeari ekin dio Carrascok orain, eta horretan, gizaki nazkagarri bat deskribatzen ari zaigu: kalean uso eta etxean otso, tratatu txar psikologikoen eragilea, dominatzailea, manipulatzailerik emozionala... Kontaketa sinesgarria egiten da berea, genero-indarkerian adituak direnen ez ezik, baita ere ikus-entzule andanaren iritzi. Nahiz eta justiziak ez ulertu horrela sententzien bidez.

Saioz saio, Carrasco erradiografia nahiko osatua ari da egiten etxe barruko biolentzia matxistak berarekin maiz duen errealtate ezkutatuaren inguruan. Egoera modu pertsonalean sufritzen ari den, edo sufritu duen, emakume bat baino gehiago testigantzarekin identifikatua sentitu den irudipena daukat. Eta baita ere, gizarte sektore handia astintzea lortu duela. Espektro sozial eta ideologiko anitza, alegia: mutur batean aurki daiteke genero ikuspegitik mentalitate zaharkituarekin funtzionatu ohi duen Telecinco txutxu-mutxu zaleen parroikia, eta beste muturrean, kontzientzia feminista sakoneko pertsonak.

ROCIO AFERAK IKUSGARRIA EGIN DU GENERO-INDARKERIAREN PROBLEMATIKA

Rocio aferak ikusgarri egin du genero-indarkeriaren problematika, eta guztiok interpelatu gaitu, batez ere gehien egin dezaketen hainbat agente (klase politiko araugilea, komunikabideak, psikologoak, epaileak, fiskalak, polizia...).

Telecinco, jakina, ederki planifikatu du estrategia, afera txikie bezainbat luzatuz eta bere programazioko ordu asko horren zerbitzura jarritz (*Salvame Limon, Salvame Naranja, Salvame Tomate, Salvame de Lux, Socialite, Viva la vida...*). Bere-berea duen fribolitate-dosi handiarekin ari da jokatzeko. Bere identitateari eusten dio, nolaz ez. Baina, tarteka, fundamentuzko eztabaidak aurkezten ari zaizkigu, eta biolentzia matxista agerikoaren zein inplizitoaren aurkako diskurtso sinesgarria eta zorrotza egiten dakiten zenbait kazetari (Patricia Lopez, Ana Pardo de Vera, Consuelo Garcia del Cid...) ere gonbidatu izan dituzte.

Bestalde, Rocio aferaren bertuteen artean, zera ere azpimarratuko nuke: ipurdi-bistan utzi dituela kazetari izartsu askok jokatu izan duten rola urtetan. Auzitan jarri ditu beren sinesgarritasuna eta jokabide etikoa. Urtetan Flores lankide eduki dutenak, harekin platoetan goxo-goxo jardun dutenak, orain zera aitortzen ari dira: Carrascori sinesten diotela, badakitela bere senar ohi tratatu-txar psikologikoen eragile nazkagarria izan zela. Aho txikiarekin aritu ere "mea culpa" entonatzeko, nolana ere; nahiago dituzte gezi akusatzaileak Floresengan zentratu...

Disimuluak disimulu, kazetari horietako gehienak aitortzen ari dira jakitun zirela abusatzaile bat programetako kolaboratzaile izateko kontratatatu zutela,

edota, abusatzaile batekin lanean ari zirela (atzo arte aritu ere).

“Bihotzeko” prentsaren genero horretan aritzen dira kazetari horietako gehien-gehienak, eta puntu bateraino ez da harritzekoa horiek erakusten ari diren sakoneko koherentzia falta eta lotsagarrikeria. Baina aparteko arreta inork bereganatu badu, hori Javier Sarda izan da. Gogoan hartu behar baitugu tele-zaborra formatuaren ideologoetako bat izan zela bere *Cronicas Marcianas* programa okaztagarriarekin (1997-2005). Gauero-gauero erakutsi zuen edozer marra etikoa eta humanoa gainditu zitekeela, eta zilegia zela jendeen artean xextrak probokatzea, giza-degradazioko eszenak pizteko xedez. Carrasco-Flores aferari ere zuku ederra atera zion Sardak orduan, guardia zibil ohi bera bere kolaboratzaile gisa fitxatu zuenean. Eta hara non, egun, estatuan iritzi-emaeleen arloan autoritate handiko pertsona erreferentzialtzat aurkezten digutela sozialismo politikoak zein mediatikoak (Ser Katea, LaSexta...), Kataluniako afera hizpide denean batik bat...

Azken batean, indarkeria matxistaren errealtate konplexuari ikusgarritasuna emateko, eta, estatuko establishment (komunikabideak, justizia, politika...) askoren azal gogorra plazaratzeko baliagarri zaigu Rocio Carrascoren doku-seriea. Kontua da auzitan jartze hori moralki kontserbadorea izaten segitzen duen gizarte arnas-berritzeko balioko ote duen. Ala, soilik, Antonio David Flores lintxatzeko eta gaitz guztiak haren bizkar jartzeko erabiliko ote duen establishment horrek, esku garbitze errugabetzaile eta hipokrita bat burutuz.

Lankidetza hitzarmenak

Kultura, kirola eta gizarte mailako eragileekin lankidetza hitzarmenak berritu ditu Urnietako Udalak



Xoxoka Goiburu, Xoxoka Motor eta beste hainbat eragile, aurreko asteko bilkuran. UDALA

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak, martxoan zehar, lankidetza hitzarmen berriak sinatu ditu herriko gizarte, kultur eta kirol mailako elkarteekin. Egape Dantza Taldea, Etxeberri plazako auzokideen elkarte, Poxta Zahar, Xoxoka-Goiburu Auzo Elkarte, Eguzkia elkarte, Xoxoka Motor kirol elkarte, Santa Kruz elkarte, Urnieta Kirol Elkarte,

Zanpatuz, Izurde, Adarra, Rol, Jostaleku eta Dendaberri. Zerrrendak ondo islatzen duenez, garrantzia handikoak dira Urnietako gizarte bizitzan.

Udalak lankidetza bultzatzen jarraituko du beste urte batez, "elkarteei, hitzarmenen bidez, beren jarduerak garatzeko eta urteko programazioa gauzatzeko behar dituzten kopuruak eta baliabideak bermatuz".



UKE, Zanpatuz edota Dendaberri ageri dira martxoaren erdialdeko bilkuran. UDALA



Urnietako
udala



Deialdi berria egin dute. SARE

Sare herritarra ekimenaren mobilizazio berria

Maiatzaren 8an Onddira igotzeko deitu dituzte urnietarrak, presoek eskubideen defentsan

Erredakzioa URNIETA

COVID-19 izurritea dela medio, Euskal Herri mailako deialdia atzeratu beharrean izan ziren. Maiatzean saiakera berria egingo dute. Orduko hartan bezalaxe, ekiteko arrazoiak ez direlako aldatu. Hauxe Sareren argudio nagusia, euskal presoak herritaratzaren defentsan: "Euskal jendartearen eta instituzioen adostasuna dugu preso eta iheslariak pairatzen duten salbuespen legediarekin amaitu eta etxerako prozesua martxan jartzeko. Ozen esan dugu, Euskal Presoak Euskal Herriratzeko garaia dela. Bestetik, Madrili dagokionean, Gobernuaren diren alderdiek egoera honekin amaitzeko adostasuna agertu dute behin baino gehiagotan, izan EHko instituzio ezberdinen baitan, edota Madrilgo gobernuakideek eginiko adierazpenen bitartez. Beraz, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Egoera honek ezin du gehiagoan luzatu. Presoek Euskal Herrian egon behar dute eta prozesua garatu behar dute gradu progresioa eginez. Senideek ere ezin dute euren bizia errepidean arriskuan jartzen jarraitu, ez eta espetxean duten senidea ikusi eta ukitu gabe urte erdia igaro, motxiladun haurrei Covid-19a dela eta gertatu zaien moduan".

POSTONTZIA

ZATOZ ASANBLADA, POXTA ZAHAR, ADARGORRI URNIETA

Autodefentsa herrikoia



AIURRI

Osasun-krisia hasi zenetik, herritarron funtsezko eskubideak urratuak izaten ari dira, abiadura izugarrian handituz sistema kapitalistak berezkoa duen krisi ziklikoa eta hortik eratorritako zapalkuntzak. Ukaezina da birusari aurka egin behar zaiola, baina gaixotasuna baliatuta jazarpenean oinarritutako neurriak ezartzen ari dira erakunde publikoetatik. Hilabete hauetan egin den kontratazio publikorik handiena poliziaren arloan izan da, 700 plaza berri gehitzen Europa osoan presentzia poliziala altuena duen herrialdean. Hau gutxi balitz, gaitz guztien kulpaz gazteena izaten ari dela sinestarazi nahi digute, astero egunkarietan "botiloi" kasuak salatzen eta gazte guzietan poliziaren presentzia handitzen.

Normala bihurtzen ari da Urnietan asteburuko polizia etorri eta liskarra beraiek bakarrik muntatzea, ondoren gazteak kriminalizatuz eta gertakariaren errua botaz. Hurrengo egunean burgesiaren kontrolpean dauden hedabideak, publikoak zein pribatuak, iritzi publikoa baldintzatu nahian, poliziaren izaera zurtzeko deia eta gazteen aurkako istorioak argitaratzen dituzte, behin eta berriz irakurri eta entzuten ditugun gezurrak.

Agintariek soluzio eraginkorrik proposatzen ez duten heinean, beraien lege

bidegabeetan oinarrituz, indar errepresiboak kaleak okupatzen dituzte era oldarkorrean eta biolentzia erabiliz. Urnietan bertan, zauritu, salatu, atxilotu, mehatxatu... dituzte herritarrak, kalea toki ez-seguru bilakatuz, kontrakoa izan behar zukeenean. Honek, joera argia eta arriskutsua erakusten du; beldurra iskin guztietara zabaltzea, herritarrak desmobilizatuz eta alienatuz; etxetik lanera edo ikastetxera, eta handik etxera. Burgesiaren pagotxa!

Gazteak ez gara kudeaketa txarraren errudunak, kalean egote hutsarengatik jo egiten gaituzte astebururo. Ez dugu onartuko egoera hau normalizatzea edo sistemak herriarekiko ezartzen duen biolentzia legitimatzea. Ez al zen indarkeriarekin amaitzeko garaia?

Bestalde, egoeraren aurrean Urnietako Udalak mantentzen duen isiltasuna salatzen dugu, beraien herritarrak behin eta berriz erasotuak izaten ari diren bitartean ezikusiarrena eginez, ardura falta izugarria plazaratuz eta jazarpenaren konplizeak bilakatuz.

Gure hautua argia da: Antolakuntza. Sistema kapitalista basati honen gehiegikeriak eta zapalkuntzak agerian utzi eta erroto suntsitzeko. Ez izan dudarik, kalean jarraituko dugu!

"Loreei esker, denda bizia bezain koloretsua da"

MIRARI ETXEBESTE ETA AIDA GARCIA KOLORE LORADENDA BERRIA URNIETAN

Orain zenbait hilabete itxi zuen Urnietako Edurne loradendak. Harrezkero, hutsik egon da. Alabaina, aurki irekiko ditu berriro ateak, itxuraldatuta



Mirari Etxebeste eta Aida Garcia gazteak, loradenda barruko instalakuntzatan. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

21 urte betetzear dira Mirari Etxebeste nahiz Aida Garcia, baina gogotsu daude proiektu berriari ekiteko: Kolore loradendaren jabeak dira.

Nondik dator dendaren izena?

Mirari Etxebeste: Niri bururatu zitzaidan dendari izen hori jartzeko ideia. Gainera, hitz-joko polita egiten du, ko-lore. Ildo beretik, gure denda bizia bezain koloretsua da, loreei esker.

Nola iritsi da zuenera loradenda irekitzeko aukera?

Aida Garcia: Amak aipatu zidan aurretik egondako jabeak utzi egin behar zuela, eta, beraz, horri jarraipena emateko ideia proposatu zidan. Hasieran, ez nintzen prest ikusten, ez bainuen sekula denda bat izan alde aurretik. Baina Mirariri proposatzea otu eta horrelaxe murgildu gara honetan.

Inoiz izan al duzue lorezaintzaren munduarekin harremana?

M.E.: Betidanik gustatu izan zaizkigu loreak, nahiz eta inoiz ez jardun alor horretan. Orain, hainbat formakuntza egin di-

tugu, eta jarraituko dugu ikasten.

Zer da lorezaintzatik gehien gus-tatzen zaizuen?

M.E.: Sortak egitea oso gustuko dut. Teknika behar da.

A.G.: Bai, baita niri ere. Horrez gain, zentro edo mahai-apaingarri delakoak egitea ere gustuko dut.

M.E.: Zenbait gauza egitea konplexua da. Guk denetatik saldu nahi dugu, zerbitzu zabala eman: lore-sortak, koroak, zentroak....

Nolakoa da negozio bati ekitea hainbeste ixten ari diren garaiotan?

M.E.: Motibazioa zein gogoia eduki behar dira. Zaila izan da, tramite luzea egin behar delako, eta, orain, gainera, are konplexuagoa da, egoeratik. Borrokatu dugu eta lortzear gaude. Egia da sektoreak ez duela bizi egoera ona, baina beste guztiak bezala.

A.G.: Hori da, oro har, guztiak daude gaizki. Baina egia da beste hainbat esparruk baino egoera hobea bizi duela gureak. Jende ugari etorri da ea noiz irekiko dugun galdezka. Guztiek

galdetzen digute ea loradenda izango den. Betidanik izan da, eta guk jarraipena emango dugu.

Jendearen jakin-mina apur bat asetzeko... Noiz irekitzeko asmoa duzue?

A.G.: Ahal bezain laister. Egin beharreko zereginak egin ditugu guk, tramiteek atzeratu digute prozesua.

M.E.: Hori da, espero dugu azkar baino lehen izatea, izan ere, jendea gogotsu dago, baita geu ere. Espero dugu herritarrak gerturatzea, eta animatzea.

A.G.: Irekiera-ekitaldia egiteko asmoa genuen, baina ez da posible izango, egoera epidemiologikoa medio. Hala ere, sorpresa berezia dugu esku-artean urnietarrentzat.

"DENETATIK SALDU NAHI DUGU, ZERBITZU ZABALA EMAN: LORE-SORTAK, KOROAK, ZENTROAK..."

Urnietako APPa eraberritu dute

Udalak albisteen atalaren diseinua aldatu du, "erakargarriagoa eta ikusgarriagoa" egin asmoz



Tresnak aukera asko eskaintzen dizkio urnietarrari. UDALA

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak APParen aldeko apustua egin zuen 2017an, eta geroztik hobekuntzak txertatu ditu. Bultzada horren atzean herritarren artetik duen harre-ra ona da, askoren erreferentzia-zko informazio gune bilakatu baita. Albisteak modu erakargarriagoan irakurtzeko doikuntzak egin dituzte, eta berrikuntza gehiago iragarri dituzte. Orain arte deskargatu ez duenarentzat, Urnietako APPa doan deskarga daiteke, "Android sistemako zein Appleren mugikorretan beste edozein aplikazio bezala".

Udalak kopuruak zehaztu ez baditu ere, erabiltzaile ugari dituela adierazi du.

Erabilera ugari, APParen baitan

Udalak argitaratzen dituen albiste guztiak bertan eskuragarri daude. Eta Agendako hitzorduak ere bertatik kontsulta daitezke. Atal gehiago ditu aplikazioak,

kultura, kirola, garraioa eta zerbitzu gehiagorekin lotura dutenak.

Ikuskizunetarako sarrerak ere eros daitezke eta kiroldegira kirola egitera joateko online hitzorduak hartzeko aukera dago.

Bestalde, herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna ere bada. Izan ere, intzidentzien atalaren bidez, hobetu daitezkeen guztiaren berri eman dakioke Udalarri: "Horretarako, argazki bat, deskribapen txiki bat eta proposatutako hobekuntzaren kokapen zehatza sar daitezke. Era berean, prozesu parte-hartzaileak gaitzen direnean, bozkatzeko edo proposamenak egiteko aukera ematen zaie".

'URNIETA APP'-A ERREFERENTZIAZKO APLIKAZIOA DA URNIETAR ASKORENTZAT





Maidar Andonegi Sorburu kooperatibako kidea, Maidar Lainez alkatea eta Ana Sanz Gizarte Zerbitzuetako langilea. AIURRI

Indarkeriarik gabe bizi nahi dutenen foroa

Indarkeria matxistak eragindako egoerei aurre egin dieten edo aurre egin nahi dieten emakume talde baten sorrera iragarri du Andoaingo Udalak. Maidar Andonegi emakumeen taldeko dinamizatzailea da

Xabier Lasa ANDOAIN

Aste Santuko oporraldiaren atarian, garrantzia handia har dezakeen foroaren berri eman zuen Andoaingo Udalak. Indarkeria matxistari aurre egitea ez da batere zaila, eta antzeko egoeran dauden emakumeak elkartzea aukeratzat hartu dute. Maidar Lainez Andoaingo alkatea, Ana Sanz Gizarte Zerbitzuetako teknikariak eta Maidar Andonegi emakumeen taldeko dinamizatzaileak aurkeztu zuten egitasmoa. Esaldi bakarrean laburbildu beharko balitz, hauxe da sortu den talde berriaren definizioa: "Indarkeriak gabeko bizitzaren aldeko emakumeen autolaguntza taldea".

Maidar Lainez alkatea adierazi zuenez, "indarkeria matxista egunero jasaten duten emakume askok adierazten dute argi eta garbi arazo sozial baten aurrean gaudela, eta arazo horren arrazoia eta jatorria egitura bera dela, funtzionatzeko modua eta gizonei eta emakumeei leku bat esleitzeko modua dela. Emakumeen eta gizonen arteko botere harreman historikoki desorekatuaren adierazpena da, emakumeen diskriminazioa bultzatzen duena".

Zalantzak eta kezak partekatzeko gunea da, eta agerraldian adierazi zuten dagoeneko urte bat eman dute lanean. Urtebetera ekimena aurkezteko eta osatzeko agerraldi publikoa egin dute.

"INDARKERIAK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEEN" LAGUNTZA TALDEA DA

Ostiralero elkartzen da taldea, Andoaingo udal eraikin batean. Orain arteko eskarmentua kontuan hartuta, oso balorazio baikorra egin zuen Maidar Andonegi Sorburu kooperatibako dinamizatzaileak. Bertan parte hartu duten edo oraindik parte hartzen ari diren emakumeei zertan egin zaien baliagarri adierazi zuen: "Zalantzak eta kezak argitzeko, erantzunak aurkitzeko, beldurrak eta bestelako emozioak prozesatzeko, entzunak eta errespetatuak izateko, babesa emateko, laguntzeko eta indarkeriatik, tratatu txarretatik eta umiliaziotik nola atera ikasteko..., balio handiko foroa da".

Gune irekia eta askea, bakoitzaren erritmora

Konfidentzialtasuna errespetatzen den gunea dela azpimarratu nahi izan zuen Andonegi. Era berean, bertan bakoitzak daukan erritmoa errespetatzen dela adierazi zuen, bakoitzak daukan errealitate pertsonalera, baliabideetara eta indargunetara egokituta.

Interesa duen emakumeak bi modutara jar daiteke harremanetan Andoaingo laguntza taldearekin:

- Sorburu kooperatiba, egitasmoaren dinamizatzailea: 688 724 747 (Maidar) sorburutxiki@gmail.com.
- Udaleko Gizarte zerbitzuak: 943 304 343.

ANDOAINGO GUNE IREKIA ETA ASKEA DA, KONFIDENTZIALTASUNA ERRESPETATZEN DENA

Harpidedun izatearen abantailak

Egin zaitez Aiurriko harpidedun eta Aiurriarekin batera, Ikusbera aldizkaria jasoko duzu

Tel.: 943 300 732

idazkaritza@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



POSTONTZIA

SANTAKRUTZ JAI BATZORDEA ANDOAIN

Aurtengo Santa Krutz jaiak



Santa Krutz jaiak, artxiboko irudian. AIURRI

Urtea aurrera doa eta maiatzaren 3a ate joka dugu dagoeneko. Badira jada hilabete batzuk Santakrutz Jai Batzordeko kideak telematikoki biltzen hasi ginela, jaiak aurrera nola eramán erabakitzeke. Garai zailak eta aldakorrak bizi ditugu, ez dago azaldu beharrik. Jada lehengo urtean Santa Krutz jai bereziak antolatu behar izan genituen egoera zela eta, jendearen animoak alaitzeko internet bidezko egitarau bat eskainiz. Aurreko urtetik egoera orokorra aldatu bada ere, Santakrutzak bezalako jai parte hartzaileak aurrera eramatea ezinezkoa dela ikusten dugu, eta arduragatik ezin ditugu antolatu nahiko genituzkeen gauzak. Gune itxietan jende kopuru mugatuarekin ibili beharrak halabeharrez zenbait jende egitarauaz gozatu ezinean utziko luke, gure jaien ideiarekin aurkako zentzuan dagoena, ez baitzaigu justua iruditzen. Gune irekietan antolatzeaz pentsatzeaz, aldiz, aurkako egoerarekin aurkitzen gara,

ikusleen segurtasun baldintzak mantendu eta pilaketak saihestea lan nekeza iruditzen baitzaigu, parte hartzaileena bermatzeak jada nahikoa lan suposatzen baitu, inoren gainean egon behar izan gabe. Hori kontuan hartuta, Santakrutzak era xume batean aurkeztuko dira aurtén, atzerantz begiratzuz eta aurreko urteez oroitzeko aukera eskainiz, momentuak eskatzen duen ardurarekin. Zaindu gaitezen, datorren urtean berriro bueltan izan ditzagun auzo bazkaria, pintxo lehiaketa, kuadrillen eguna, erreka jaitziera, sagardo lehiaketa, txosnatako kontzertuak, elkarteetan danborradak eta herriko eragile desberdinek urtero antolatzen dituzten hainbat eta hainbat ekintza gehiago. Gora Santakrutzak!

EGOERA IKUSITA, SANTAKRUTZAK ERA XUME BATEAN AURKEZTUKO DIRA AURTEN



Juan Karlos Izagirre. EHBILDU

Dokumentala Basteron, EH Blduren eskutik

"Hamar urte baino ez" dokumentala igande honetan eskainiko dute, eguerdiko 12:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN 'Hamar urte baino ez' EH Bilduren ibilbidea laburbiltzen duen ikus-entzunezkoa da, eta igande honetan Bastero Kulturgunean eskainiko dute. Eguerdiko 12:00tan hasiko da eta ikusteko gonbidapena behar da. Andoaingo EH Bilduk emailera idazteko deialdia egin du (ehbilduan-doain@gmail.com). Larraitx Ugarte EH Bilduko kideak haxe adierazi zuen, aurkezpen ekitaldian: "Azken 10 urteetan egin duguna izugarria da, eta hori da 'Hamar urte baino ez' dokumentalak jasotzen duena. Sentimendu eta une epikoz betetako ikus-entzunezkoa da". Juan Karlos Izagirre Donostiako alkate-ohiak egindakoa balioan jarri nahi izan zuen: "Egindakoak eta egiten ari garenak balorean jarri, eta itxaropenez hurrengo hamarrak margotzeko eta ilusioz ekiteko indarrez". Hogeita sei elkarrizketa bildu dituzte dokumentalean. Besteak beste, hizlari agertuko dira Joseba Asiron Iruñeko alkate ohia, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkate ohia, Martin Garitano Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahal-dun Nagusi ohia, Jon Iñarritu senataria, Mertxe Aizpuru diputatua edota Mikel Otero legebiltzalkidea.



AIURRI

Ziako errekan isurketa, berriro

Errekabeltz eta Penadiko erreken elkarketaz sortzen da Ziako erreka, eta Gudarien Etorbidean dauden lantegi eta etxeen artetik doa. Produktu ezezagunaren bat isuri zuten errekan asteburuan zehar, eta kolore zuriz etorri da ur emaria. Udaleko Ingurumen saila zein Ura Uraren Euskal Agentzia jakinaren gainean daude. Lehendik ere ikerketa zabalik zegoen.



AIURRI

Zikinkeria Olazar parkean

Eguraldi onarekin, eta ordu aldaketarekin batera, jende asko gerturatu da Olazar eta Otieta parkeetara. Ingurumena zaintzeko kanpainak etengabeak badira ere, batzuren oso eragin eskasa izan du. Bizilagunen artean ditugu kontzientziario maila eskasa duten pertsonak. Edukiontzia ez daude urruti, bi parkeetan. Borondate falta argia antzematen da.

Erreketa ikusgarria

Aurreko astean papera biltzen zuen kamioi batean sutea piztu zen, eta Extremadura kaletik aurrera dagoen aparkalekura kamioia eramán eta sutea itzali zuten. 24 ordu, erretako karga guztia lurrean barreiatuta zeukaten. Ur tutua ere ez zegoen urruti, berriro su hartuz gero itzaltzeko. Zorionez, kalte materialak arinak izan ziren eta ez zen bestelako ezbeharrik izan.



AIURRI



Jokin Lizeaga, martxoan ateratako argazkian. AIURRI

‘Ezina ekinez egina’, dortsala janzteko grina

Andoni Urbistondo URNIETA

Tuneletik atera dela esatea gehitxo esatea izango da, baina amesgaiztoaren azken atalak bizitzen ari dela akaso ez hainbeste. Jokin Lizeaga tunelaren irteera sumatzen hasi da, eta larunbat eguerdi aldera argi hori handixeagoa izateko esperantza dauka. Goizean goiz dortsala bat jantziko duelako aspaldiko partez, korrika saio luze bati ekin, izerditu, sufritu... Lehiatu, aspaldi egin ez duen

MENDI LASTERKETAK 28 bat kilometroko saioa egingo du larunbat honetan, Jokin Lizeagak. Urnieta inguruko mendietan, Asturiasen istripu larria jasan eta hiru urtera, herritarren aurrean ospatu nahi du itzulera

bezala. Hiru urte baino gehiago, hain zuzen ere. Asturiasko zulo madarikatu hartara jausi zenetik hiru urte bete ziren pasa den apirilaren 7an, eta azaroaz geroztik korrika saio batzuk egin ahal izan dituela ikusita, dortsala

la janztea erabaki du. Jokin-ek ez dauka denbora edo errekor jakinik egiteko erronkarik proban, baina behin oinetakoak jarrita, badaki daukana emango duela, gorputzak azken uneko ajeren batekin zigortzen ez badu.

28 kilometroko saioa osatu du, dagoeneko, oinaze handirik gabe, eta horrek indarra eman dio bere konfiantzari. Gorputzak azken hiru urteetan eman dizkion ezustekoekin ere gogoratzen da, sarri, ordea, eta tentuz jokatu nahi du.

Herriari, lagunei, familiari hiru urte hauetan jaso duen babesa bueltatu nahi die korrikalariak, eta horregatik aukeratu du bost mendiko ibilbidea, Urnieta inguruan dauden bost mendi ezagun, hain zuzen ere. Urnietako plazatik abiatuko da, goizeko bederatziak jota. Besabira igoko da Miallus, Benta eta Xoxokan barrena. Handik Belabietako erredera, eta Eteneta aldera, Adarramendi ekialdera utzita. Onddora joan-etorria egin ondoren Adarramendi igoko du, ondoren Onddi, eta handik, ipar aurpegiko malda malkartsuan barrena, Hernaniko Portu auzora. Institutuko etxegunerantz egingo du ondoren, eta Santa Barbarako gotorlekua Saretxo aldetik igoko du. Pista eta errepide zati luzea osatu beharko du ondoren Lizeagak, Azkorte ermitaraino, eta handik Buruntzako gurutzeraino. Itzuliko bidea leku beretik egingo du, baina kiroldegi gaineko aparkalekura jaitsiz. Pintore kalean barrena Zaldundegin gurutzatuko du errepidea, eta Aldapeta edo Astoen Aldapan gora San Juan plazara iritsiko da Jokin.

Mendietara hurbiltzeko deia

Jokinek berak jende asko erakartzea espero da, kirolari ezaguna baita Euskal Herrian eta eskualdean. Euskal Telebistako kamera eta kazetariak ere irteeran izanen dira, korrikaldiaren berri emateko. Eguraldi ona espero da larunbaterako, lehorra eta freskoa, eta Adarramendi aldeak berez jende asko erakartzen duenez, egun horretan ere Jokin animatzera jendea hurbiltzea espero da. Lizeagak berak bertaratuko diren guztien babesa eskertu nahi izan du, proba eguna iritsi aurretik.

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**



San Juan plazan abiatu eta amaituko den lasterketa

- Eguna: Apirilak 17, larunbata.
- Ordua: 09:00.
- Abiapuntua: San Juan plaza.
- Helmuga: San Juan plaza.
- Distantzia: 28 kilometro.
- Ibilbidea: Urnietako plazatik Onddo igoko du aurrena, Etenetan barrena. Ondoren Adarramendiren txanda izango da, gero Onddi, handik



MENDI LASTERKETAK

Hernanira jaitsi eta Santa Barbarara abiatzeko, Saretxo aldetik. Eta azkena, Buruntza, Azkorte ermitan barrena. Buelta bide beretik.

- Erronka: Lizeagak ez du markarik egiteko asmo berezirik, baina bi ordu eta erdiren bueltan egitea espero du.

Garaipen ikusgarria, euripean

MOTORRA Beñat Fernandez andoaindar gazteak erakustaldia eskaini zuen Xerezeko zirkuituan



Egun handia hastear zen "Pelontxu" eta bere lantalde osoarentzat. CORROCHANO

Erredakzioa ANDOAIN

13 urterekin, Beñat Fernandez "Pelontxu" andoaindarra bidea egiten ari da motorgintzaren elitean. Espainiako Superbike Txapelketan parte hartzen ari da, eta aurreko igandean garaipena eskuratu zuen Xerezeko zirkuitu ezagunean. Denboraldiko lehen garaipena lortu du maila horretan, eta meritu handikoa da lasterketa euripean burutu baitzen. Lasterketan zehar buruz buru aritu ziren andoaindarra eta Lorenzo Guyau. Azken bihurtunean, Guyau lurrera joan zen arte. Austin Racingeko kide da Beñat Fernandez, eta garaipen ikusgarria lortu zuen. Alex Longarela eta Pedro Alomar IgaxTeam taldeko pilotuek osatu zuten podiuma. Julen Corrochano andoaindarra "Pelontxu"ren taldeko kidea da. Pozarren zegoen, "talde osoak lan



Lehen lasterketa irabazi du. CORROCHANO

handia egin du, nahiz eta xehetasun batzuk hobetzeki ditugun. Beñatek euripean asko entrenatu du eta lasterketan aurrera egiteko ezinbestekoa izan dela ikusi da. Izugarria izan da".



Kataluniako Austin Racing taldearentzat egun handia izan zen, aurrekoa. CORROCHANO

TERNUA

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatía

BAILARAKO 5 TONTORREN MARKA SAIAKERA

Onddo-Adarra-Onddi-Santa Barbara-Buruntza

(28km-ko luzera eta 1750m-ko desnibel positiboa)



JOKIN LIZEAGA

"EZINA, EKINEZ EGINA"

2021eko apirilak 17, larunbata

Goizeko 9:00-tan Urnietako plazan

Aurreko marka (1997/10/25): Emaitz Jover (Zato) urnietarrak:
Urnietako-Adarra-Onddi-Santa Barbara-Buruntza-Urnietako (3h 12' 50")

ZanPatuz
mendikoak

AIURRI

KRONOAK



Euskaldunaren Futbol Kanpusa

FUTBOLA Gabonetan bezala, oraingoan ere herriko gaztetxo ugari eman du izena



Kanpusa antolatu dute Ubitarte futbol zelaian. **AIURRI**

Erredakzioa ANDOAIN

Aste Santuko oporraldian, 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat kanpusa antolatu du Euskalduna futbol taldeak. Zortzi begiraleen ardurapean eta seiko taldeetan banatuta, ia ehun neska-mutil elkartu ziren Ubitarte futbol zelaian. Jolas ludikoak, kirol elikadura, futbola lerrokako lana, entrenamendu tekniko-taktikoa, azalezia probak, erremate lehia-

keta... jarduera ezberdinak landu zituzten. Ander Setien begirale lanetan aritu den gazteetako da: "Futboleant arituz, neska eta mutilen arteko elkarbizitza sustatzeko antolatu dugu kanpusa. Gabonetan antolatu genuen lehen edizioa, eta izan zuen arrakasta ikusita, bigarren edizioa antolatu dugu. COVID-19aren ondorioz ezarritako protokoloa betez, aurrera egitea lortu dugu".

Ansa, lehen partidako izarra

ERREMONTEA Sagardoaren Txapelketaren lehenengo jardunaldian garaipena Ansa-Labaka bikotearentzat




Ansa, ezkerrean, astelehen gaueko partidari. **AIURRI**

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Setien sagardotegia ordezkatzeko duen Ansa-Labaka bikoteak Ereñotzuko Larre-Gain sagardotegiaren izenean ari diren Juanenea eta Zubiria garaitu zuen (30-26), Sagardoaren

txapelketaren lehen jardunaldian. Imanol Ansa urnietarra izan zen astelehen gaueko partidako izarra, eta erremontista sendoa. Erasoan maila izugarria erakutsi zuen. 20 tanto egin zituen, denera.



Peru Alkain eta Iker Atxaga. **ANDOAINGO**

Lasterketak Arabako eta Nafarroako lurretan

TXIRRINDULARITZA

Denboraldia aurrera doa, ibilbide malkartsuetan barrena egindako lasterketetan

Erredakzioa ANDOAIN

Denboraldia ez dago alperrik botatzerik eta Aste Santuan eta Pazko Astean lasterketak antolatu dira.

Jubenilak, Lizarra | 2021.4.11

Sailkapena:

1. Yago Aguirre (Donosti Berri)
2. Galder Bengoechea (O.Fraile)
3. H.Etxeberria (Buruntzazpi)
36. Mikel Goikoetxea (Andoaingo)
44. Xabat Alonso (Andoaingo)
48. Peru Alkain (Andoaingo)
77. Iker Atxaga (Andoaingo)
87. Unai Galarza (Andoaingo)

Jubenilak, Agurain | 2021.4.04

Sailkapena:

1. Daniel Casais (Ampo)
2. Unai Zubeldia (Limousin)
3. Oihan Larrañaga (Iridoi)
12. Mikel Goikoetxea (Andoaingo)
36. Iker Atxaga (Andoaingo)
43. Xabat Alonso (Andoaingo)
64. Peru Alkain (Andoaingo)

Kadeteak, Villatuerta | 2021.4.04

Sailkapena:

1. Gorka Corres (S.Zadorra)
2. Lander Sanz (Laguntasuna)
3. Tamirat Navarro (Luyando)
25. Iker Ugartem. (Andoaingo)
30. Markel Etxarri (andoaingo)
44. Ekhi Arrieta (Andoaingo)
56. Ganix Ormazabal (Andoaingo)

Senior mailakoak bikain ari dira

ESKUBALOIA Urnieta Artola Harategia mailari eusteko bidean da, Gure Auzune gasteiztarrek irabazita



John Sanchez urnietarra, jaurtiketa ikusgarrian. **UKE**

Erredakzioa URNIETA

Garaipen garrantzitsua senior mailako mutilentzat, Euskadiko txapelketako play-offa jokoan zegoelako. Zazpi goleko errentaz eskuratu zuten urnietarrek garaipena (35-28). Markagailuan alde handia nabari den arren, partida parekatua izan zen. Oraindik ez dago ezer erabakita, izan ere bueltako partida gogorra eta ikusgarria izatea espero da.

Nesken mailan, Urnieta Quel Abogados taldea Gipuzkoako Txapelketako B multzoko liderra da, igande goizean Txingudi taldea irabazita (29-16) eta Tolosa Eskubaloien porrota baliatu ondoren. Partida bikaina jokatu zuten urnietarrek. Ez hori bakarrik, seniorren garaipenean jubentil mailako taldekideen parte hartzea ezinbestekoa izan zen taldea indartzeko.

Pilota partidak Arrate frontoian

PILOTA Lau pilota partida jokatu ziren Arrate pilotalekuan, aurreko larunbatean



Julen Gaztañaga kadete mailako pilotaria. **AIURRI**

Erredakzioa ANDOAIN

Lau partida jokatu ziren lau terdian, iragan larunbatean. Andoaingo Gazteleku pilota eskolakoek partida guztiak irabazi zituzten. Egoera epidemiologikoagatik normaltasunez jokat

tu eta entrenatu ezin den arren, gazteek azken asteetan emaitza onak mahaigaineratu dituzte.

Egoerak egoera, pilotariak egoerara moldatzen ari dira, asteburuko garaipenak horren erakusle.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Euskal Herriko Itzuliko notak

10etik Ora bizpahiru minutuko irakurketan!

10 Primoz Roglic: Itzuliko onena. Erlojupekoko nagusitasuna baliatu du Pogacar bere atzetik mantentzeko, eta azken eguneko pultsuan garaile izan zen. Taktikoki, fisikoki eta mentalki. Tourreko arantzatzkoa kendu du, neurri batean. Txirrindulari txapeldunen jarrera erakutsi du, gainera, azken etapan David Gaudu-rekin etapa garaipena partekatuz, eta taldeari presioa kenduz Erlaitzen gora egin zuten akatsagatik. Profesional handia, atzo eguna esnatzearekin bat Tourreko azken erlojupekoa ikuskatzen ari zen Bordelen.

9 Astana taldea: Bi etapa garaipen bikain, Alex Aranburu eta Ion Izagirrerekin. Arriskuari arriskua hartuz, nekez ahaztuko zaizkigu Aranbururen jaitsierak Urkaregin eta Elosun, motorrak jan beharrean, bizi arriskuan. Aspaldian Euskal Herriak izan ez duen klasiko zale petoa bilaka liteke Ezkiokoa.

8 Jumbo Visma taldea: Egurra jaso zuen osteguneko etapan, Erlaitzen gora UAEko McNulty-ri hanka egiten uzteagatik, eta aurrean zihoan Vingegaard ez geratzeagatik. Baina danimarkarra bigarren izan da ondoren nagusian, eta azken etapan Arrate

Pogacarrekin batera igota. Azken etapan Vingegaard-ek berak eta Tolhoek-ek izan zuten jarrera, txalotzeko modukoa. Bi horien izenak nola esaten diren ere ikasi dugu Xabier Usabiagari esker: Vineko eta Toliyek.

7 Roberto Laiseka: Itzuliko ibilbideen arduraduna da txirrindulari ohia, eta bete-betea asmatu duela esan behar. Bilboko erlojupeko polita, Arbelzagako igoera itxia, Ermualde, Erlaitz, Arrateko etapa laburra baina gogorra, 3.500 metroko desnibel pilaketarekin 111 kilometrotan... Etorkizunari begira Ipar Euskal Herrian sartzeko asmoa gauzatu beharko litzateke, Pirinioetan barrena etaparen bat antolatzea. Horretarako, baina, sosak dituztenen borondatea behar da. Laisekak eta Itzuliko antolatzaileek borondatea, eduki, badute.

6 Tadej Pogacar: Etorkizuna berea izan behar luke. Ermualdeko pultsua irabazi zion Roglic herrikideari, baina azken etapan akatsa egin zuen, Gorlako jaitsieran egon behar zuen tokian egon ez zenean. Izaera eta nortasun erakustaldia eman zuen, dena den, azken 50 kilometroetan jazarpen lasterketa batean murgilduta, bakar-bakarrik ia-ia.



Roglic, Itzuliko garailea. GETTYIMAGES

5 Deceuninq-Quick Step taldea: Zer egin zuten Ondarruko etapan... Tropeleko talde onenaren eskura bakarrik dagoen balentria. Sei laguneko ihesaldian bi lagun sartu, eta taldeko biak bakarrik iritsi helmugara, Honore eta Cerny. Wolfpack!

4 Euskaltel-Euskadi eta Caja Rural taldeak: Lan zaila zuten, World Tour mailako taldeak oso indartsuak direlako. Ihesaldi pare bat, eta presentzia apur bat Ondarruko etapan, jazarpen lanean.

3 Movistar taldea: Valverde hirugarren helmugaratu zen Arraten, baina hori uzta eskasa da azken hamarkadako txirrindulari onenetakoarentzat.

Movistarren taktika ere... Arbeltzagan ihesaldia lehertu zuten, Valverdeengan pentsatuz, baina espainiarra ondoren ez zen garaipenaren jokoan sartu ere egin. Arrateko etapan ere deigarria izan zen Valverdek Pogacarri jazarpenean laguntzarik ez ematea. Lagundu izan balio akaso Roglic harrapatu eta etapa irabazteko jokoan sartuko zen. Erein gabeko uztarik ez da lortzen, normalean.

2 Mikel Landa: Aurrerago behar zuen, podiumetik askoz gertuago. Are gehiago Bilboko erlojupekoan txukun aritu ostean. Ermualden nahi eta zin, Erlaitzen gora ere jo zuen, baina hautsi gabe. Roglic eta Pogacar beste maila batean daudela, baina Krabelinaitzen gora Gaudu eta Carthyren pare egon behar zuen Murgiakoak. Zortzigarren azkenean nagusian, emaitza ona ez.

1 UAE-Emirates eta Josean Fernandez Matxin: Basaurikoa kirol zuzendari trebea da, baina akats handia egin zuen Gorlan behera... Berak, edo bere txirrindulariek, ezin jakin. Pentsatzekoa da Matxinena dela akatsa, Pogacar eta McNulty ez direlako, preseski, Azkoitia eta Bergara arteko mendialdean jaiotakoak. Akats larria izan zen, han erabaki zelako Itzulia. Ez

zuen garaiz erreakzionatu, McNulty ez zuen lanean jarri Pogacarrekin batera Soraluzeko saihesbidean, eta Arizonakoek pott egin eta Pogacarri aurrera egiteko esan zionerako berandu zen. Akats taktiko larria.

0 Hondakinen arazoa: Txirrindulariak ikusi ditugu ur potoak husten pisua arintzeko, ertzero ez botatzeko, zaborra utzi behar zen tokian jabetu ez zirelako. Arazo handia da hori, gune berezi horiek zaborrez bete eta garbitzen ez badira. Nork garbitu behar dituen eztabaida sortu da. Antolatzaileak? Akaso bai, baina garbitu egin behar da. Zikloturistok gure zaborra etxera ekartzen dugu, edo herriren bateko zabor ontziren batean bota. Deigarria izan zen Roglicek Arrateko azken igoeran gel eta barratxo paper bilgarriak ere lurrera bota behar izatea. Hainbesteko oztopoa al dira 20 gramo? Irtenbideren bat bilatu beharko da, eta honatx proposamena. Zabor poltsak daramatzaten motorrak jartzea ibilbidean.

*** Aiurri, erreferentzia:** Aiurritik zabaldutako kronikek zabalkundea izan dute Goienan, Kronikan eta Euskal Herriko tokiko hainbat hedabideetan.

Eskualdean barrena

Aurtengo laugarren etapa, apirilaren 8koa, Gasteizen hasi eta Hondarribin helmugaratu zen. Ziztu bizian iritsi ziren eskualdera, Andoainera aurrikuspen onenak aise gainditu zituztelako. Bi herrietako Udaltzaingoari eta kirol eragileei esker –Andoingo Txirrindulari Eskola, bereziki– lasterketa eskualdean barrena arazorik gabe igaro zen.



UNANUE



AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 15

ANDOAIN Hitzaldia

Tertulia feminista, "Emakumea eta desgaitasuna" izenburupean. Rosa Ugaldere eskutik.
18:30, Bastero. Aforoa bete arte.

ANDOAIN Erakusketa

"Dantza" izeneko erakusketa, izen bereko filman erabilitako jantziak ardatz hartuta.
Azken eguna: Apirilak 30.

URNIETA Deialdia

Kultura, euskara, hezkuntza, kirola, gazteria eta aisialdiko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da. Irabazi asmorik gabeko ekimenei bideratuta dago.
Azken eguna: Apirilak 23.

ANDOAIN, URNIETA Deialdia

"Apelliduak abizendu" kanpaina martxan dago.
Infoa: Udal euskara zerbitzuak.

OSTIRALA 16

ANDOAIN Kontzertua

Kalakan musika taldea disko berria aurkeztera dator.
19:00, Bastero. 12 euro.

OSTIRALA 23

ANDOAIN Dantza

Kukai taldearen "Hnuy Illa" ikuskizuna, Sarrionandiak idatzi zuen liburua oinarritzat hartuta.
19:00, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 24

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Ene kantak taldearen ikuskizuna, "Liuragarria, gorputz barrura goaz" izenburukoa.
12:00, 16:00, Bastero. 4 euro.

ASTELEHENA 26

ANDOAIN Ikastaroa

Batukada feminista, Jabekuntza eskolaren baitan. Izena eman daiteke Berdintasun sailan.
18:00-20:00, Leizaran institutua.



Kalakan taldea. BAGA-BIGA

ANDOAIN Artizar disko berriena aurkeztera dator Kalakan

Aurkezpenik behar ez duen talde horietakoa da Kalakan. Nazioartean eta Euskal Herrian ospea lortu dute, eta disko berria aurkezten ari dira sasoi honetan. Baga Biga disketxeak proposamenak dituen berrikuntzak nabarmendu ditu: "Azken disko honetan, bere bizi bidearen xenda berri batean sartu da Kalakan, kantu tradizionalak sonoridade aktualago batzuekin apainduta; zentzua inoiz galdu gabe. Kantu hutsa beti hor izanik ere, unibertso zabalago bat eskeintzen dio elektronikoki programatutako musikak taldearen musikari. Danborrak eta ahotsak, teklak eta efekto kosmikoak... Jamixel, Xan eta Bixentek hainbat sorpresa emango dizkigute lan berri honetan".

Apirilak 16, ostirala. 19:00. Bastero Kulturgunea.



Olaia Iraola eta Andrea Isasa, Latinoamerikan zehar egindako bidaian. AIURRI

URNIETA Bidaiateka lehiaketa

16 urtetik gorako Buruntzaldeko pertsonak deituta daude Bidaiateka lehiaketara. Lehiaketa Instagram bidez egingo da eta bi fase izango ditu: aurkezpen fasea eta azken fasea. Lehenengo fasean 60 segundoko bideoa igo beharko da, bidaiaaren aurkezpena eginez. Oinarriak Urnieta.eus gunean aurki daitezke. Azken fasera hiru bideo iritsiko dira, eta horiek @gazteinfournieta-ko instagram kontura igoko dira. Bistaratzek, "Atsegin dut" kopurua eta epaimahaiaren puntuazioa kontutan hartuko dira. Eta horren arabera, hurrenez hurren, 300, 200 eta 100 euroko sariak banatuko dituzte.

Aurkezpen fasea: Apirilak 19-21. Oinarriak Urnieta.eus gunean

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Minari. Historia de mi familia

Lar., 17. 19:00.

Ig., 18. 19:00.

Astel., 19. 19:00.
Ikuslearen eguna

Haurrentzat:

Godzilla vs. Kong

Lar., 17. 16:30.


Ig., 18. 16:30.

Caminho longe

Dokumentala:

Apirilak 22.

Osteguna, 19:00.



SINOPSISIA



Minari. Historia de mi familia

Zuzendaria, gidoilaria: Lee Isaac Chung. **Aktoreak:** Steven Yeun, Han Ye-ri, Youn Yuh-jung, Alan S. Kim, Noel Cho, Will Patton...

Herrialdea: AEB (2020). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, familia. **Iraupena:** 115 min.

Amerikar ametsa nekazal eremuan

Zazpi urteko haurra da David, korear-amerikar jatorrikoa. Filma 80ko hamarkadan kokatzen da, eta egun batetik bestera bere familia bizitokiz eta bizimoduz aldatuko du. Arkansas

aldeko landa eremuan Daviden familiak baserri batean lan egitea erabaki du, bertan gauzatzeko amerikar ametsa. Oscar sarietarako sei hautagaitza eskuratu ditu.

SINOPSISIA



Caminho Longe

Zuzendariak: Josu Martinez, Txaber Larreategi. **Herrialdea:** EH (2020). **Generoa:** Dokumentala. **Iraupena:** 70 minutu. **Musika:** Joserra Senperena.

Deportatuaren itzulera

Alfonso Etxegarai Santo Tome eta Principe irlan deportatuta dago, 1986az geroztik. Kristiane

Etchaluz lagun izan du denbora tarte horretan guztian. Harekin batera itzuliko da Euskal Herrira.

Kotoizko ikastaroak

Aste honetan eta hurrengoan ikastaro ezberdinak eskainiko dituzte Salkin elkartearen egoitzan



Fanny Alonso moda diseinatzailea UDALA

Erredakzioa ANDOAIN

"Mujeres del Algodon" erakusketaren ondoren, Andoaingo SALKIN merkatari eta ostalarien elkarteak ikastaro sorta antolatu du. Kotoia izango da sei ikastaro horien ardatza, eta doan eskainiko dituzte Fanny Alonsok eta Ane Galarragak.

Egun hauetan izango da, apirilaren 15etik 24ra zehazki, Salkinek Agustin Leitza kaleko 11 zenbakian duen egoitza berrian. Udaletik adierazi dutenez, "egungo egoera dela eta, eta aforo mugatuak mantentze aldera, ikastaro horietako bakoitza bi txandatan banatuko da, ordu eta erdiko iraupenarekin".

Lehen txanda, apirilaren 15etik 17ra:

1. "Txikoria belarra". Apirilak 15, osteguna. 17:00-20:00. 6-11 urte bitarteko haurrentzat.
2. "Kotoiaren landarea". Apirilak 16, ostirala. 15:00-16:30. 14 urtetik gorakoentzat.

3. "Kotoizko kala". Apirilak 17, larunbata. 10:00-13:00. 6-11 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Bigarren txanda, apirilaren 22tik 24ra:

1. "Kotoizko arditxo". Apirilak 22, osteguna. 17:00-20:00. 6-11 urte bitarteko haurrei zuzendua.
2. "Kotoizko dekorazioa". Apirilak 23, ostirala. 15:00-16:30. 14 urtetik gorakoentzat.
3. "Kotoizko ametsak". Apirilak 24, larunbata. 10:00-13:00. 6-11 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Parte hartzeko, alde zuzenetik izena eman behar da 943 590 409 telefono zenbakira deituta (Ordutegia: 10:00-13:00).

Kotoizko ikastaroak Andoaingo Udaleko Sustapen Ekonomiko eta Enplegu sailaren laguntzarekin egin ahal izan dira. Egitasmoa oso lotuta dago martxoan Basteron eskaini zen erakusketari.



Ekitaldia larunbatean izango da. AIURRI

Oroitzuz elkartearen ekitaldia, larunbatean

Eguerdiko 12:00tan hasiko da Etxeberrietako Alfaro plazan, eguraldia lagun izanez gero

Erredakzioa ANDOAIN

Frankismoak Andoainen erail zituen herrikideen alde ekitaldia antolatu ohi du Oroitzuz elkarteak. Iaz, erabateko konfinamenduan, bertan behera geratu zen. Aurtengoan ekitaldia antolatu nahi dute, Osasun Sailak ezarritako neurri guztiak betearaziz. Txalaparta, dantza eta bertsoa izango dira aurtengo ekitaldiaren osagaiak. Aurrekoak baina xumeagoa bada ere, ekitaldia antolatzen jarraitu nahi dute. Larunbatekoa aurrera eramatea, beti ere, eguraldiaren arabera izango da. "Goiztirian" eskultura parean izango da ekitaldia, eguerdiko 12:00tan hasita.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Jon eta Xuhar Aranburu

Apirilaren 14 eta 16an Jon eta Xuhar lehengusuek 9na urte beteko dituzte. Ahal bezain ondoen ospatu eta asko gozatu!



ANDOAIN

Inge eta Unax

Apirilaren 10ean Ingek 6 urte beteko ditu, eta Unaxek 9 apirilaren 21ean. Muxu handi bana. Aitona-amonak.



ANDOAIN

Irati Ezeiza Usabiaga

Gure neska politak 24 urte beteko ditu apirilaren 26an. Aitona Esteban eta amona Mirenen partetik.



ANDOAIN

Markel

Ondo-ondo pasa genuen zure urtebetetze egunean, etxekoekin eta lagunekin. Maite zaitugu! Etxekoak.



ANDOAIN

Irati Martinez Diez

Zorionak Irati!!! Martxoaren 31n, hamaika urte bete dituzu. Zorionak bihotza eta muxu potoloak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN

Naiara Ocon Lertxundi

Zorionak Naiara! Egun zoragarria pasako dugu. Askok maite zaitugu! Muxu potolo bat etxekoekin partez.



ANDOAIN

Laiene

Apirilaren 3an egin zituen urteak. 20 besarkada, 20 irribar ta 20 aldiz esaten dizugu zoragarria zarela!



ANDOAIN

Eli

Martxoaren 25ean egin zituen urteak. 50 lore, 50 muxu ta 50 aldiz ozen esaten dizugu: asko maite zaitugula.



ANDOAIN

Irati Jauregi Hidalgo

6 urte potolo gure ondoan. Jarraitu beti bezain jator! Muxuak etxekoekin partez, maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Lau bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

Ahal dela, ez dadila tamaina handiko argazkia izan.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.



www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia
- Komunitatea

111 Akademia Saria finalera iritsi da

Luis Garde, Uxue Alberdi eta Idoia Garzesen eleberriak lehen aukeraketara iritsi baziren ere, aurtengo sariduna Pello Lizarralderen eta Joxean Agirreren artean erabakiko da. Hilabetearen amaieran emango dute saridunaren berri

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal literaturgintzan erreferentziatzeko sariketa da, argitaletxe askorentzat garrantzia handikoa. Karmele Jaio, Harkaitz Cano, Uxue Alberdi, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi edota Koldo Izagirre saritu dituzte urte hauetan guztietan. Azken edizioako finalera ibilbide luzea eta oparoa duten bi idazle iritsi dira. Alde batetik, dagoeneko sariketa irabaztea zer den badakien Joxean Agirre donostiarra. Beste batetik, Euskadi saria irabazi izan duen Pello Lizarralde goierritar-iruñarra. 111 Akademia ekimeneko partaideek hirugarren eta azken bozketan bietako baten alde egin beharko dute. Akademiaren webgunean irakurleen hainbat iruzkin aurki daitezke, eleberrirari buruzkoak.

Apirilaren 22ra bitarte izango da botoa emateko aukera, eta antolakuntzak hilaren amaieran emango du saridunaren berri.



Pello Lizarralde. TTAP

Egoera epidemiologikoak ahalbidetzen duen heinean, sari banaketa ekitaldia egitekoak dira.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak sustatutako ekimena da 111 Akademia, eta bertan Euskal Herri osoko literaturzaileek parte hartu ohi dute.



Bi nobela finalistak. ELKAR/EREIN



AIURRI

Errepublika, gogoan

Apirilaren 14arekin bat eginez, Andoingo zenbait herritarrek Errepublikaren bandera gorri-hori-morea jarri zuten udaletxeko balkoian. 90 urte atzera, 1931ko apirilaren 14an, Errepublikaren aldeko hautua egin zen, Alfonso VIII. monarka borboiak eta Primo de Rivera militarrek inposatutako diktadura atzean utzi eta gero.

'Ibili Andoain' ekimena

Adineko jende mordoska bildu zen asteazkenean, Goikoplazan. Parte-hartzaileek ibilbide laburra, ertaina eta luzearen artean aukeratu dezakete. Jarduera fisiko osasungarria bultzatzea eta adinekoen arteko gizarte-harremanak erraztea helburu du ekimenak. Andoingo Udalak sustatuta, gizarte mailako elkarteak laguntza ematen ari dira.



AIURRI



HEDABIDEekin
ERE BAI



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



28 €

Harpidetza egiteko,
Aiarri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Apirila-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 28 eurokoa baino ez da INOIZ EZ DA BERANDU!

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago